**"Emakumeei giza eskubideak ukatzen zaizkien bitartean, munduko edozein lekutan, ezin da ez justiziarik ez bakerik egon".**
**(Shirin Ebadi, Bakearen Nobel sariduna)**

Emakume eta neskenganako indarkeria giza eskubideen urraketarik ohikoena eta munduan jende gehiagok jasaten duena da, seguru asko. Gizarte guztietan ageri da, sistema politiko edo ekonomikoa edozein dela ere, eta kultura, klase sozial eta etnia guztietan gertatzen da. Eguneroko eskandalu hau modu ezberdinetan agertzen da eta askotariko espazioetan jazotzen da, baina erro bakarra du: soilik emakume izateagatik emakumeek jasaten duten diskriminazio unibertsala. Indarkeria hau modu ezberdinetan ageri da. Beren bikote eta bikote ohiengandik bortxakeria pairatzen dute, giza salerosketaren biktima dira, sexu indarkeria sufritzen dute, genitalen mozketak eta behartutako ezkontzak jasaten dituzte...

**INDARKERIARIK gabeko bizitza giza eskubidea da**

Mundu osoan zehar, emakumeak antolatu egin dira genero indarkeria agerian utzi eta haren aurka borrokatzeko. Lege, politika eta ohituretan aldaketak lortu dituzte talde hauek. Baina, aurrerapauso garrantzitsu horiek eman badira ere, munduko zenbait lekutan argi eta garbi diskriminatzaileak diren lege eta politikak dituzte oraindik, eta planeta osoan de facto diskriminazioa mantentzen da. Nazioarteko legeriaren ikuspegitik, Estatuak dira estatu eragileek zein partikularrek egiten dituzten giza eskubideen urraketen erantzule. Erantzukizun horrek eskatzen du indarkeriari aurrea hartzea, ikertzea eta zigortzea; baita biktimei egindako kaltea ordaintzea ere. Erakusketa honen bitartez, **medicusmundi arabak** eta **Amnistia Internacionalek** arazoaren larritasuna eta dimentsio unibertsala nabarmendu nahi dituzte. Aitzakiarik ez duten giza eskubideen urraketa hauen aurrean, Estatuek erantzukizuna beren gain hartzea nahi dute bi erakunde hauek.

"Mientras se nieguen los derechos humanos a las mujeres, en cualquier parte del mundo, no puede haber justicia ni paz".
(Shirin Ebadi, Premio Nobel de la Paz)

La violencia contra las mujeres y las niñas es probablemente la violación de los derechos humanos más habitual y que afecta a un mayor número de personas en el mundo. Está presente en todas las sociedades, independientemente de su sistema político o económico, y no sabe de culturas, clases sociales ni etnias. Este escándalo cotidiano tiene lugar en múltiples espacios, pero posee una raíz única: la discriminación universal que sufren las mujeres por el mero hecho de serlo. Además, esta violencia se manifiesta de diferentes formas. Sufren violencia a manos de sus parejas y ex parejas, son víctimas de trata de personas, son blanco de violencia sexual, se las somete a mutilación genital y a matrimonios forzosos…

Una vida sin VIOLENCIA es un derecho humano

En todo el mundo las mujeres se han organizado para poner al descubierto y combatir la violencia de género. Estos grupos han logrado modificaciones en leyes, políticas y costumbres. Sin embargo, a pesar de estos importantes avances, en algunas zonas del mundo aún existen leyes y políticas abiertamente discriminatorias y, en la práctica totalidad del planeta, la discriminación "de hecho" sigue siendo una realidad.La legislación internacional responsabiliza a los Estados de las violaciones de derechos humanos cometidas tanto por agentes estatales como por particulares. Esta responsabilidad incluye prevenir, iinvestigar, sancionar la violencia y reparar a las víctimas. A través de esta exposición, **medicusmundi álava** y **Amnistía Internacional** quieren poner de relieve la gravedad y la dimensión universal del problema, con el fin de conseguir que los Estados asuman su responsabilidad ante estas violaciones de derechos humanos que no tienen excusa.

**FECHA DATA**
URRIAREN
15ETIK 26ERA
**Del 15 AL**
**26 DE OCTUBRE**

SARRERA DOHAN
**ENTRADA GRATUITA**

AMNISTÍA INTERNACIONAL

medicusmundi
álava • araba

# emakuMEAK eta giza eskuBIDEAK
# MUjeres y derechos HUManos

**argazki erakusketa exposición de fotografías**




**EHU/UPVKO LETREN FAKULTATEAREN ATARIA**
**Unibertsitatearen ibilbidea, 5**

**VITORIA-GASTEIZ**

**HALL DE LA FACULTAD DE LETRAS DE EHU/UPV**
Paseo de la Universidad, 5

# *emaKUMEAK eta giza esKubideak* **Mujeres y derechos humanos**





















AMNISTÍA INTERNACIONAL

medicusmundi álava•araba